


Otsailaren  
13an  
eskuragai



Testua eta irudiak: **Anthony Browne**

Itzulpena: **Koldo Izagirre**

Saila: Album irudidunak. Gaur egungo klasikoak.  
Edizio honekin batera kezkamuxela bat ematen da.

Gaiak: haurren kezkak eta izuak uxatzeko sendagarria.

IBIC: YBC (Album irudidunak)

Kartoi gogorreko azala | 25 x 27 cm | 32 or. | Salneurria: 17,00 €

ISBN: 978-84-9172-394-3

HIZKUNTZA HAUETAN ERE: gaztelania | galegoa | katalana | portugesa



9 788491 723943



Album klasikoa, ezin egokiagoa beldurrak eta kezkak partekatu eta gainditzen ikasteko. Gainera, edizio honetan, kezkamuxela izeneko panpinatxo opari (bidezko merkataritzakoa).

Beste kultura baten atek zabaltzen dizkigun sinboloa dira «Kezkamuxelak» izeneko mamuxel edo panpina bereziak. Aspaldi du Guatemalako haurrek panpinok egiten dituztela txotxez, zatartxo eta hariz; lotarakoan beren kezkak kontatzen dizkiete eta burukoaren azpian uzten dituzte, biharamunean kezkarik gabe jaiki ahal izateko.

Anthony Brownek misterioz beteriko ipuina osatu du, giro harrigarri hori indartzen duten irudiak dituela lagungarri. Tentsio unek kolorearen arabera daude mailakatuak: lbairen kezkaldiak grisean daude emanak, beldur giroa nabarmentzeko; aitzitik, kolorez gainezka datoz beste orrialdeak, «kezkamuxelak» ageri direnak bereziki, mamuxel edo panpina hauen eragin onuragarria adierazteko.


Anthony Browneren estiloak irudien errealismoa eta gizakia itxuratzen duen xehetasuna ditu ezaugarri: aieruen marrak, azalaren zimurrak. lbairen bizitzako atseginaldiak familiarrean gertatzen dira, giro lasaigarria emanez. Alabaina, kezek hartua dutenean, amets, eldarnio eta jatorri surrealistako formak ageri dira. Amonak emango dio lbairi ezinegon eta nahigabe horren sendagarria.

## Anthony Browne

Leeds College of Art-en egin zituen ikasketak, eta diseinu grafikoan trebatu zen. Gizakia irudikatzean daukan perfekzio-beharrak Manchesterren etorri zitzaion, bertako ospitale batean osasun gaien marrazkilaria gisa ibili zenean. Geroago hasi zen haurrentzako ipuinak sortzen eta apaintzen, zorion postalak margotzeki ekin zionetik. Browneren estiloan margolari surrealisten eragina atzeman liteke, eta maite ditu gertaldi onirikoak eta osagarri bitxiak. Bere ibilbidean jaso dituen sarien artean Kate Greenaway domina eta Kurt Maschler saria aipa litezke, baina oroz gain nabarmentzekoa da 2000. urteko Hans Christian Andersen saria, bere obra osoarengatik. Sari hau irabazitako aurreragoko britaniarrak 1956an jaso zuen. Hizkera plastikoarekiko loturak eta ikusi eta irakurtzeko molde berriak saiatu dituzten egile ingelesetan ezagunenetakoa da. Adibide bikainak dira *Gorila*, *Urdabururarrak* (Kalandrakak argitaratua euskaraz, galegoz eta portugesez), *Aldaketak*, *Tunela*, *Zoologikoa* eta *Willy* saila. Kritikariek diote Browneren lanak lotura kultural eta artistikoz beteriko mundua sortzen duela, testua osatzeko eta interpretatzeko irakurlearen inteligentzia zorrotzen dituzten arrasto eta gako bisualak eskaintzen dituela adina kontuan hartu gabe.

<http://www.anthonybrownebooks.com>


Egile beraren beste liburu batzuk:



16,00 €




9 788491 723844



16,00 €



9 788491 723257



16,00 €



9 788491 722090



16,00 €



9 788476 817162